



**2013KO MARTXOAREN 22KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko martxoaren hogeita bian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko martxoaren 8an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 9 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HAMABI MILA SEIEHUN ETA BAT EURO ETA LAUROGEITA LAU ZENTIMO (12.601,84 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- MERKATARI ELKARTEARI DIRULAGUNTZA.-**

Lazkaoko Merkataria Elkarteak 2012. urtean aurrera eramandako jarduerengatik egindako dirulaguntza eskaera ikusi eta aztertu ondoren eta Euskera Batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Gobernu Batzordeak, aho batez, BI MILA ETA BOSTEHUN EURO (2.500€)ko dirulaguntza ematea erabaki du.

**IV.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

